GAUEKO ARRETA-ZERBITZUA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 65+ mendekotasuna > Egoitza edo tutoretzapeko apartamentu batera sartu

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. Hemen informazio osoa.

Norentzat

Mendekotasuna duten **65 urtetik gorako pertsonak**, **gaueko gainbegiratzea** behar dutenak.

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta baliabidearen erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

65 urte edo gehiago.
Egiaztatutako **mendekotasuna**.
Gauez laguntza behar izatea.

Zertan datza?

Laguntza behar duten adinekoentzako arreta-zerbitzua da, gauez gainbegiratze handia behar dutenentzat, baina gainbegiratze hori ezin diete beren etxean eskaini beren ohiko zaintzaileek.Helburua familiei laguntzea da, gaueko orduetan atseden hartuz.Jarraipenaren balorazioa, arreta pertsonala, erizaintza-zerbitzua eta garraio egokitua barne hartzen ditu, behar izanez gero. Afari eta gosari zerbitzua ere izaten dute, baita garbiketa zerbitzua ere.

Norentzat?

65 urtetik gorako pertsonak, mendekotasuna dutenak eta **gauez laguntza behar dutenak**.

Zein da kostua?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

65 urte edo gehiago izatea.

Mendekotasun-egoeran egotea.

Gauez laguntza handia behar izatea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Kontsultatu informazio osoa